



BERASTEGIKO UDALA
- GIPUZKOA -

**BERASTEGIKO UDALAREN
2015EKO URRIAREN 6KO PREZASKO ETA EZOHIKO UDALBATZARRREN AKTA.**

Berastegin, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiara, 2015eko urriaren 6an, arratsaldeko zortziretan, Udalaren Batzar osoa biltzen da presazko eta ezohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Amaia Azkue Eizagirre Alkatearen presidentziapean.-

Alkateordeak:

- Aritz Mujika Saizar (EH Bildu)
- Mirari Saizar Zinkunegi (EH Bildu)

Zinegotziak:

- Patxi Irisarri Aranalde (EH Bildu)
- Leire Garaiburu Arzelus (EH Bildu)
- Jon Matxinea Azurmendi (EH Bildu)
- Iñaki Agirre Arizmendi (EAJ-PNV)
- Jose Maria Olaizola Orbegozo (EAJ-PNV)
- Koldo Andoni Ordozgoiti Juanenea (EAJ-PNV)

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari-kontuhartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidenteak, 20:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.-

GAI ZERRENDA:

LEHENENA.- Deialdiaren premiazko izaera onartzeko proposamena.-

BIGARRENA.- Berastegiko enparantza urbanizatzeko proiektua onartzeko proposamena.-



BERASTEGIKO UDALA
- GIPUZKOA -

BAKARRA.-

DEIALDIAREN PREMIAZKO IZAERA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-

Azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Lege Jaurbidearen Erregelamenduko 79. artikulua arabera, bileraren premiazkotasuna udalbatzari aurkeztu zaio, bilera premiazkoan den ala ez erabaki dezan.

Alkate Andreak adierazten du argitaratu dela 2015eko irailaren 16ko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdiari buruzkoa eta enparantza urbanizatzeko proiekturako dirulaguntza eskatuko dela eta bakarrik hamabost eguneko epea dagoela.-

Ondorioz, Udal Batzarrari egiten zaio jarraiko

ERABAKI PROPOSAMENA:

BAKARRA.-

Deialdiaren premiazkotasuna berrestea.

BIGARREN PUNTUA:

BERASTEGIKO ENPARANTZA URBANIZATZEKO PROIEKTUA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-

Kontuan harturik 2015eko irailaren 16ko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdiari buruzkoa.-

Kontuan harturik proiektua Soroa Arquitectos, S.L.P.ak idatzi dutela eta lanen aurrekontuak 433.988,07€ gehi BEZa 91.137,49€, guztira 525.125,56 €ko aurrekontua duela.-

Kontuan harturik aurrekontuaren arabera, kontratazio organoa Udalbatzarra dela.-

Eta espedientea ikusita, Alkateak gaiaren bozketa egitea agindu du, izandako emaitza hauxe da:



BERASTEGIKO UDALA
- GIPUZKOA -

Alde bozkatzen dute: EH Bilduko 4 zinegotziak eta EAJ-PNVko 3 zinegotziak.-

Emaitzaren arabera, Udalbatzarraren legezko kideen gehiengo osoaren aldeko botoekin, ERABAKI DA:

LEHENA.-

Onartzea enparantza urbanizatzeko proiektua, Soroa Arquitectos, S.L.P.ak egindakoa 433.988,07€ gehi BEZa 91.137,49€, guztira 525.125,56 €ko munta duena.-

BIGARRENA.-

Obra esleitzeko baldintza plegu administratiboa eta plegu teknikoa onartzea. Erabaki honen eranstean zaio I eranskin bezala plegu administratiboa.-

HIRUGARRENA.-

Kontratu honek eragingo duen gastuari aurre egiteko 2015 urteko udalaren aurrekontutan adinako kreditua egozteko konpromisoa hartzea.-

LAUGARRENA.-

Premiazko lehiaketa iragartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta WEB orriko kontratzailearen profilean.-

Puntu honetan, lehendakaritzak bertaratutakoei luzapena egiten die interesgarriak deritzoten galde-eskeak egin ditzaten.

Egoera honetan, 20:15 ordu direnean, Presidentziak batzarra amaitutzat jotzen du, akta hau egiten delarik, nik, idazkari honek, diodanez gertaturiko guztiaren islada zehatza dena. Fede ematen dut.

Berastegin, 2015eko urriaren 6a.

Udal idazkari-kontuhartzailea,

Izpta.: Maria Pilar Garmendia Miguel.



